

# Abarrak

MIKEL GARCIA

## Holokaustoaz ere barre egin daiteke

Maiatzean 75 urte bete dira Adolf Hitlerrek Alemaniako hauteskundeak irabazi zituela. Handik gutxira Reichsführer izendatu zuen bere burua eta ezaguna zaigun garai beldurgarriari eman zion hasiera. Urte batzuk lehenago, gaztetan, pinturak eta arkitekturak erakarrira Vienako Arte Ederretako Eskolan sartu nahi izan zuen Hitlerrek, baina ez zuen azterketa gainditu. Halere, Vienan geratzea erabaki zuen eta zailtasun ekonomiko handiak izan zituen, behartsuentzako aterpe batean bizitzera.



Horixe da hain zuzen *Mein Kampf* (Nire borroka) filmak irudikatuko duen garaia. Udan errodatuko da, Urs Odermatt zuzendaria- ren gidaritzapean eta Berlinaleren hurrengo edizioan aurkeztea da asmoa. Ironia zorrotzez beteriko pelikula izatea du berezitasun nagusia eta behartsuentzako aterpean logela bi judutarrekin partekatzen duen Hitler gazte bat aurkeztuko du filmak. Judutar horietako batek babestuko du etorkizuneko führerra eta bibotea uzteko eta politikan sartzeko aholkatuko dio gainera. Proiektua George Tabori idazle judutarren obran dago oinarritua –Taborik Auschwitzen galdu zuen aita–.

Ez da lehen aldia nazionalsozialismoaren ondorioak barreaz baliatuz pantailaraten direna. Iaz *Mein Führer* parodia estreinatu zuten eta Roberto Benigniren *La vita e bella* tragikomediak arrakasta izan zuen duela urte batzuk. Dena den, faxismoaren eta zehazki Adolf Hitler eta bere politikaren satirarik txalogarriena *Diktadore handia* lanean dugu, dudarik gabe. Charles Chaplinek zuzendua eta idatzia, pelikula 1940an estreinatu zen New Yorken eta Oscarretarako bost izendapen jaso zituen. Chaplinek berak antzezten ditu bi pertsonaia nagusiak (Astolfo Hynkel Tomaniako diktadorea eta honen antza handia duen bizargin judutarra) eta hitz egin zuen lehenengo filma izan zen.

Hynkel (Hitlerren trasuntua) bikain antzezten du Chaplinek, berekoia, harroa, bekaiztia eta nahiko infantila. Diktadoreak herritarrei zuzendutako diskurtsoak jenialak dira, baita Osterlich konkistatzeko Benzino Napoloni Bacteriako diktadorearekin (Benito Mussoliniren trasuntua) duen lehia –pastel guda bat tartean–. Absurdoaren eta kritika sarkastikoaren arteko istorio hau borobiltzeko, diktadorearen lekua hartu duen bizargin judutarren diskurtsoarekin amaitzen da filma: herria esklabo bihurtzen duen diktaduraren aurka mintzo da jendaurrean, “anaitasun unibertuala” berreskuratuko duen etorkizun berri baten alde.

Nola hartuko zituen hitzok Adolf Hitlerrek berak? Izan ere, filma Alemanian, Espainian eta Italian zentsuratua egon bazen ere, Hitlerrek kopia bat eskuratu zuen eta behin ez, bitan ikusi omen zuen pelikula. Bere iritzirik, ordea, ez da ezagutzen. “Edozer gauza, edozer, emango nukeen ikusi zuenean Hitlerrek zer esan zuen jakiteagatik”, adierazi zuen Charles Chaplinek beranduago. Hori ere bada *Diktadore handiaren* erakargarrietako bat: nola hartuko ote zuen Hitlerrek bere irudiari, politikari eta sinesten zuenari buruzko parodia gordina? Barrerik egin ote zuen?

hotela  
*Atxaspi*

Bittoria kalea 24  
31770 LESAKA  
Tel.: 948 637 53  
www.atxaspi.com